



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK

**Futbol ekitaldiaren eta nazio
nortasunen arteko lotura Euskal
Herrian**

Ekain Rojo Labaien

152-159 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.20>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Futbol ekitaldiaren eta nazio nortasunen arteko lotura Euskal Herrian

Rojo Labaien, E.

*Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Nor Ikerketa taldea
Ekain.Rojo@ehu.es*

Laburpena

Euskal nazio nortasuna eta futbol ekitaldia elkar hartuta joan dira 1920ko hamarkadaz geroztik, industria iraultza berantiarraren garai berberean gizarteratu ziren euskal nazionalismoak eta haren hurbileko prentsa idatziak berena egin zutenetik. Frankismoaren lau hamarkadatarako lozorroan euskal sinboloen azken gotorleku izatetik XXI.mendeko aro eraberrituan euskal nazioaren ispilu konplexua izatera igaro da futbol ekitaldia. Estatu gabeziaren auziak, euskal abertzaletasunaren baitako zatiketek eta euskal nazioaren partaide sentitzeko askotariko hautemate moduek modu bateratuan euskal nazioa haragitzeko abagunea zaildu dute. Futbol ekitaldia, bide batez, euskal taldeen bereizitasunak eta euskal selekzioaren ezintasunek nabarmenduta, euskal nazio nortasun irmoaren konplexutasunaren isla da.

Hitz gakoak: Futbola, nazioa, Euskal Herria, konplexua, sinboloa, lurraldetasuna

Abstract

Basque identity and football have gone hand-in-hand since the birth of both the Basque nationalism movement and the pioneering press that favoured it, which were created at the same time as the arrival of the British sport during the late Industrial Age. Football was the bastion of the symbols of the Basque nation during the long-lived Francoist dictatorship in Spain, and nowadays it has become a reflection of the complexity of the Basque nation. The absence of a Basque State and the divisions within the Basque movement have made it difficult for the Basque Country to embody a notion of a nation. Football serves as a sign of the difficulty of bringing together the community, reflected in the distinctive policy of their own clubs and the impossibility of having an official Basque national team.

Keywords: Football, nation, Basque Country, complexity, symbol, territory

1. Sarrera eta motibazioa

Industria iraultza berantiarraren testuinguruan elkar hartuta gizarteratu ziren Euskal Herrian britainiar jatorriko futbol ekitaldia eta euskal abertzaletasuna XIX.mendearen amaieran. Gizarte eraldaketa handiaren garaia zen, bereziki Bilbo handiko gunearen baitako hiritartze eskergarena, bertako meatzeetara Espainiako milaka behargin etorriarazi zituen. Karlismo mugimendutik eta 1876ko euskal foruen behin betiko desagertpenari erantzunez sortu zen euskal nazionalismoa, eta egokiera horretan euskal izaera kolektiboaren biziraupena arriskuan zela hautemanda. 1894an sortu zuen Sabino Aranak Bilbon, eta urte bereko maiatzean *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak Euskal Herrian jokaturako lehenengo futbol partidaren berri eman zuen, Areetan izandakoa (Castañon Rodriguez, 1993). Futbola eta nazionalismoa industria iraultzaren bihotzean gertakari garaikideak izan ziren. Urte berean biak aldiberekoak izatea zoriaren halabeharrekkoa da, baina ezin ukatu meatze industriaren ustiapenak euskal nazio nortasunaren aro garaikidea ezaugarritu duten bi alderdi horien iritsieran eragin zuzenik izan zuenik. Egunkari aitzindarien bidetik, masa komunikazioaren ezarpenak biribilduko zuen artikulu honetan ardatz nagusi izango den euskal nazionalismoaren, futbol gertaeraren eta hedabideen hiruko eragingarria. Horren bidez, 1920ko hamarkadarako, Euskal Herria, Espainiaren mendeko industria gunea zehazki esateko, futbol ekitaldiaren sorleku ardatza bihurtua zen (Walton, 1999). Hala, Espainia mailan 1936ko gerra bitartean izan ziren talde eta jokalaririk gaitasunekoak euskal herritarrak izan ziren. Frankismo garaiko bigarren aroan, gainera, euskal izaeraren gotorleku eta adierazpide bihurtu ziren klubok.

Espainiako estatu-nazioaren eta bere baitako estaturik gabeko nazioen arteko borroka ebatzi gabe igaro zen XX.mendea, eta futbol ekitaldiak bere sona nazio nortasunaren arteko gatazka horiek haragitzen sustraitu du (Rojo-Labaien, 2014b). Globalizazio fluxuek eta ziurgabetasunak ezaugarritutako XXI.mende hastapenean, nazionalismoek eta futbolak aldibereko loraldia izan dute (Sonntag, 2008), eta zentzu horretan, Euskal Herriko eta Espainiako azkeneko urteetako

gertaerak bilakaera horren argigarriak dira. Alde batetik, Espainiako futbol nazio selekzioaren nazioarteko garaipenek eragindako nazionalismoaren berpizkundera agerpe da, Euskal Herriko karrketan ere hauteman zena. Bestalde, hurrenez hurren, 2009ko eta 2012ko Espainiako Errege Kopako finaleran Athleticen eta Bartzelonako euskal eta kataluniar jarraritzaleek espainiar ereserki eta erregetzari egindako protesta jendetsuak aipagai dira. Futbola gaur egungo gizarte modernoaren konplexutasunaren isla da (Bromberger, 1998) eta Espainiako estatuari dagokionez, nazio nortasunen arteko oreka konplexuaren agertokia, bertako gizartearen pluralitatearen berri ematen duena (Llopis Goig, 2008). Ez hori bakarrik, Euskal Herrian ere, kirolek oro har, eta futbolak oroz gain, bere baitako nazio atxikimenduen arteko gatazka islatu dute, eta baita euskal nazio nortasuna lehenesten dutenen artekoa, euskal selekzioaren adiskidantzazko futbol partiden harira plazaratu izan dena. Horrela, hori guztia abiapuntutzat harturik, eta 2013an futbolaren eta nazio nortasunen loturaz, eta hedabideen bitartekaritza, burututako doktorego tesiak zilegituta, artikulu honen xedea da Euskal Herriko nazio auziaren orainaldia kirolaren ispiluaz behatzea. Aintzat hartu behar da futbolak Hego Euskal Herrian duela nazio ordezkariaren ahalmena, eta Ipar Euskal Herrian errugbia dela gizartearen kirol ardatza. Ezberdintasun horrek eragotzi egin du futbolak mugaz bi aldeetako komunitatea haragitzea eta banaketa gehiagotu egin du, era berean.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Gizarte zientziak kirola eta futbol ekitaldia errealitatea aztertze moduko bitarteko zilegiak zirela aitortu zutenetik garrantzia nabarmena hartu du mota honetako ikerketa lerroak azken hamarkadetan. Lehenago, aisialdiaren eremuko izateagatik beheratua bazen, gaur egun zientzia ezagutzazko diziplina ezberdinek dihardute futbolaren baitan ikerketa lanak burutzen, horietatik asko gizarte diziplinen arteko elkar eraginekoak gainera. Christian Bromberger antropologoak dioten moduan, identitate kolektiboak eta etsaigoak adierazteko lehenetsitako eremua da futbola, eta, hain zuzen ere, atxikimenduak bideratzeko eta erakusteko ahalmenean datza bere mundu mailako ospeak neurri handian (Bromberger, 1998). Eric Hobsbawm historialariak hil aurretik idatzita laga zuen milioika pertsonen nazioaren komunitate imajinatua 11 jokalariren taldearen deiturapean onenen haragitzen dela dirudiela, norbanako oro sinbolo horren bitartez nazioarekin identifikatzeko aisetasuna dela medio (Hobsbawm, 1992).

Ildo berean jarraituz, Euskal Herrian, Phil Ballen esanetan (2010), futbola gailu saihestezina da bertako historia garaikidea aztertze moduko. Arbuiaezina da 1920ko hamarkadatik futbolaren eta nazio nortasunen arteko hartueman Euskal Herrian. Espainiaren estatu nazioaren eraikuntzari, hots, asimilaziozko edo homogeneizaziozko ekimenari, aurre egiteko erraminta sinbolikoa izan da azken belaunaldietan. Egiari zor, frankismoa lau hamarkadetan ahalegindu zen estatua eta nazioa elkartzen, futbolaren helmena ere horretarako baliatuz. 1950eko hamarkadan ohartu zen frankismoa kirola bere izatea zilegitzeko eta Espainia batua irudikatzeko erabiltzearen onuraz, eta batez ere, denbora igarota, telebista hargailuak etxeetan hedatu zirenean. Hala ere, Euskal Herriko eta Kataluniako futbol harmailak izango ziren 1960ko hamarkadako errejimenaren irekiera baliatuta nazio nortasun azpiratuen ikurren berpizkunderaren eremua (Gonzalez Aja, 2002). Argigarria da futbola eta frankismoaren arteko lotura sakonki aztertu zuen Duncan Shawren hausnarketa: Bere gogoetari jarraiki, futbolaren politikarako erabilpena frankismoaren aurkako norabidean eraldatzen hasi zen azkenerako (Shaw, 1987). Horrekin lotura du Raymond Boylek eta Richard Haynesek hedabideen bidezko futbol ekitaldiez egiten duten hausnarketa (2000). Ikerlariok nabarmentzen dute futbolaz eginiko identitate sorkuntza ez dela norabide bakarrekoa, eta diskurtso ofizialari ezarritako erresistentzia ere aintzat hartu behar dela. Hain justu, diktadura aroan ere agertarazi zen futbola gizarte aldaketarako bidea ere izan daitekeela.

Francisco Franco hil eta monarkia izaerako demokraziarako Espainiako igarobide konplexuan diktadurak desagerrarazi nahi izan zituen nazio auziak berragertu ziren. Futbol txapelketak 1978ko Konstituzioak jaso ez zuen Espainia nazio anitza irudikatu zuen berriro ere, 1930eko hamarkadako liga txapelketaren lehenengo urteetan gertatu antzera (Llopis Goig, 2008). Euskal taldeak, eta Bartzelona, Kataluniako talde ordezkari gisara, nazio bereizituen haragitzeak bihurtu ziren Espainiako estatu-nazioaren lurraldetasuna irudikatzen jarraitzen zuen lehiaketan. Frankismoaren aurretik jaio zen euskal selekzioa 1979an berrezarri zen, euskararentzat dirua

biltzeko, "Bai Euskarari" ekimenari lotuta lehenengoz. Kataluniako nazio taldeak geroago hartu zuen lekukoa. Biek adiskidantza partidak jokatzeak aukera izango zuten bakarrik, jakina denez. Izan ere, nazioarteko kirol erakundeek, salbuespenak-salbuespen, estatu-nazioen ordezkartzan oinarritutako futbol txapelketak egituratu zituzten FIFA 1904an sortu zenetik. Nazionalismoen norgehiagoka biziaren testuinguruan jaio zen erakundeak eta futbolak, hastapenetik eduki zuten izaera politikoa, Paul Dietschy historialariak dioen modura (2010).

Hori horrela, futbol ekitaldiak estatu-nazioen aingura bilakatu dira XXI. mendearen hasieran. Globalizazioaren hazkundeak eta modernitate garaitik eratorritako ainguren ahultzeak botatako erronkari aurre egiteko bitartekoa da nazioarteko futbola estatu-nazioentzat. Esaterako, eta oroz gain, esan genezake, Espainiarentzat. Imajinatutako komunitatea (Anderson, 1991), herritarren begietara arrazoizkoa egingo duten batasunezko sinboloen gabeziagatik kirol ordezkartzak are eta garrantzia gehiago du estatu-nazio horrentzat. Dena den, ekonomia eta politika krisialdiaren bat egiteak, eta estatu gabeko nazionalismoen indar hartzeak 1978ko Konstituziotik eratorritako Espainiaren nazio erakundetzearen zutabeak inoiz baino gehiago kolokan jarri dituzte (De la Madrid, 2013). Espainiako nazio selekzioaren berealdiko garaipenen aldiak, 2008 eta 2012 urte bitartekoak, eta horiek inguratu zituzten nazio harrotasunezko ospakizunek ere ez zuten lortu estatu-nazioaren proiektua sendotzerik. Hain justu, ikerketa honen helburua da futbolaren bidez gaur egungo aldaketazko garairen nondik norakoak aztertzea, bereziki Euskal Herrian. Azken urteetan izandako hurbileko gertaerak hizpide dira, euskal selekzioaren ezintasuna tarteko dela.

3. Ikerketaren muina

Espainiako selekzioak 2008tik 2012rako aldiari irabazi zituen bi Europako Kopako lehiaketek eta Munduko Kopako nazio harrotasunezko elkarretaratze eta ospakizun zabalak eragin zituzten, nazio sinbolo eta kantuez girotuta. Frantzia 1998ko Munduko Kopa garaipenaren ospakizunak aurrekaririk gabeko nazio ospakizun baterazlea bideratu bazuen, Espainiari dagokionez, nazio nortasunezko bilgune horiek inoiz gertatu gabekoak ziren. Alejandro Quirogak azaltzen duen moduan (2013), lehenago ez gertatu izanaren arrazoibideak bi hauek izan daitezke. Alde batetik, frankismoaren lau hamarkadako muturreko nazionalismoak zilegitasuna kendu zien jendarteko espainiar nazionalismo aldarrikapenei. Bestalde, Katalunia eta Euskal Herrian bereziki espainiar estatu-nazioaren eraikuntzaren aurka zegoen gizartearen zati handia, hauteskundeetako emaitzei erreparatu gero, behinik-behin. Horrenbestez, eragozpen horiek gainditu zituela aintzat hartuta, ezina da futbol garaipenek Espainian erdietsitakoa gutxieste. Estatu-nazioa irudikatzeko beste ohiko baliabideek ahal izan ez zutena telebista emanaldiek igorritako futbol ekitaldiak posible egin zuen. Juan Carlos De la Madrid ikerlariak egoki arrazoitzen duen gisara (2013), Espainiako nazioaren usadiozko aingurak ahulduta daudenean, futbola babesleku erakoa da herritarrentzat, nazio taldearen garaipenak herrialde osoarenak bailiran ikusarazita, metonimia moduko irudia eginaz.

Hala eta guztiz ere, Espainiako nazio selekzioak aurrekaririk gabeko arrakasta erdietsi zuen garai berean, 2009ko eta 2012ko Errege Kopako finalek espainiar estatuaren batasun eza agertarazi zuten futbolaren eremuan ere. Adiera politiko handikoak izan ziren Athleticen euskal jarraitzaileek eta Bartzelonaren zale kataluniarrek gehiengo handiaz estatuko bi sinbolo nagusiren aurka bi partiden atarian eginiko txistu eta protestak. Estatuaren nazio ereserkiari eta monarkiari txistua jo zioten bertaratutako milaka zalek errege estatu agintaritzarekin harreman sinboliko handiena duen futbol txapelketaren ekitaldian. Are gehiago, Espainiako hedabideek arreta handiena ezartzen dioten egun bakarreko Espainiako futbol ekitaldi garrantzitsuena den heinean, orduan jazotakoak gizarte oihartzun handia izan zuen. Esan nahi baita, Espainiaren nazioarteko kirol garaipenek, kanpoko erkaketan, estatu-nazioaren harrotasuna sendotu bazuten, Kopa finaletan zale euskal herritarrek eta kataluniarrek adierazitako protestek estatu barnean itxi gabeko nazio auziez ohartarazi zutela. Hori dena gertatu zen gainera, 1930eko hamarkadatik Mendebaldeko Europak jasan duen ekonomia krisi handienarekin batera aldi berean, eta oroz gain Espainia hein handi batean zartatu duenean. Hain zuzen ere, hondoratze ekonomikoak are gehiago erasan zuen estatu-nazioaren zilegitasuna, arazoei irtenbidea emateko atakan jarrita. Hala, ekonomia krisialdiaren auziak Espainiaren baitan bi mendetan itxi gabeko nazio gatazken

ebazpenaren premia bizitu zuen. Egokiera horretan, euskal nazioak bere berezko gatazkak eta arazoak baditu, futbol ekitaldiak erakusten duen moduan.

3.1 Espainiako estatu nazio eraikuntza eta euskal nazio nortasunaren sinbolo aingura

Rafael Benitez entrenatzaile espainiarrak bertako nazio taldearen aro garaitsuaren aurretik era honetara azaldu zuen talde horren eraginkortasun ezaren arrazoia. Bere hitzetan, espainiar nazio selekzioa beste taldeetatik ezberdintzen zuena adimena zen. Alegia, Argentinak, Uruguai eta Frantziak, besteren artean, hots, nazioarteko garaipenak zituzten ordezkariak, abertzaletasun sentipen indartsuagoa izateak (cfr. Gomez, 2007). Benitezek, futbol prestatzailearen ikuspegitik, kirol eraginkortasunaz gaindiko azalpena eman zion Espainiaren iraganeko garaipen gabeziari. Beste modu batera adierazita, herrialdean, gizartean, zegoen batasun eza, eta aberri atxikimendu falta islatzen zen nazio taldean Benitezen hitzetan, eta ondorioz ezinezkoa ei zen beren aberria defendatzeko elkartuta jarkitzen ziren selekzioei gailentzea. Kirol hamaikako taldea eta gizartea estu lotzen zituen aski sostengu zabala zuen entrenatzailearen aburu horrek. Kataluniar jatorriko futbolariak neurri handian hornitutako taldeak joera galtzailea irauli zuenean, hain justu aurkako arazoibidea eman zioten hedabideetatik. Esan nahi baita Espainiaren batasuna irudikatzen zuela erkidego ezberdinetatik joandako jokalariek elkarrekin beste ordezkariak aurka eskuratu zuten arrakastak. Orduan ere, metonimiaz, herrialde osora barreiatzen zuten hedabideetatik taldearen eta gizartearen osasuna eta patua. Nolanahi ere, 2012an Ukrainan eta Polonian Europako Kopa irabazi ostean, eta Espainiako selekzioaren beharaldia hasi zenean, iraganeko ezbaiak berragertu ziren, askatu gabeko nazio auziekin harremanduta.

Euskal Herriari dagokionez, aipatzekoa da Markel Susaeta Athleticeko futbolari euskal herritarra Espainiako nazio taldera lehenengoz deitu zutenean sortu zen polemika bizia. 2012ko azaroan Panamaren kontra adiskidantzazko partida jokatu aurrekoan prentsaurrekoan egin zituen adierazpen hauengatik eztabaida sortu zuten hedabideetan. Erdilariak adierazi zuen nahiz eta partida nazioarteko txapelketa bateko neurketa izan ez, adiskidantzazkoa baizik, garrantzitsua zela. "Gauza bat" ordezkatzeko zutela esan zuen, zalantzati, jokalaria, "Espainia" izena adierazi gabe. Esan hori gogor kritikatu zuten hedabideetatik, eta beste behin ere salatu zuten Euskal Herriatik eta Kataluniatik espainiar selekziara joandako futbolarien ustezko nazio atxikimendu gabezia. Futbolariak jarrera abertzalea izan zezatela galdegiten zuten, hartara. Kontraesana da hedabide horietatik Euskal Selektzioaren eta Kataluniaren adiskidantza partidei buruz aritzean futbola eta politika nahastea salatzen dutela. Halaber, paradoxaren zentzu berean jarraituta, askatu gabeko kontraesana da Espainian indarrean dagoen kirolaren legeak behartzen dituela jokalaria nazio taldearen bidez Espainia ordezkatzera (10/90 legea kirolarena, urriaren 15koa). Futbolariak, ondorioz, legez behartuta daude, nazio taldean jokatzera, prestatzailearen gonbita jasoz gero bederen. Gainera, hedabideetatik behartzen dituzte abertzaletasunez aritzera.

Areago, futbolariok ez daukate nazioartean Espainia ordezkatzeko ez den beste abagunerik, berezko nortasun abertzalea erakustea utziko liekeena. Izan ere, hein handi batean Espainiako estatuaren ardura politikoa da Euskal Herriko eta Kataluniako nazio selekzioei futbol ekitaldi ofizialetan parte-hartzea galaraztearena. Egiazki, nazioarteko futbolaren antolaketa, sortzez eta izpirituz, estatu nazioen ordezkarietan oinarritua da, baina, FIFAk hala nolako bidezidorra aipatzen du estaturik ez duten nazioentzat. Hala, FIFAn 2012ko legediaren 10.artikuluan, lehen paragrafoan, federazio kideen onarpenaz hau zehazten da: FIFAn nazioarteak aitortutako estatu burujabe bakoitzeko federazio bakarra onartzen du bere baitan, bostgarren eta seigarren paragrafoetako salbuespenekin. Bostgarren paragrafoan Erresuma Batuko lau elkargo bereziak eta beren nazio selekzioak onartzen ditu. Seigarren paragrafoan honakoa dio: FIFAn sartzeko eskaera igorri ahalko du oraindik independentzia eduki ez, eta bere gaindiko estatuko FIFAn federazio kidearen oniritzia aurkezten duen erregio baten futbol elkargoak (FIFA 2012). Hortaz, estatuen baitan sortutako kirol egitura honek bestelako ordezkariak ahalbidetzen ditu, baldin eta horien gaineko eskumena duten estatu kideek onespina ematen duten. Gardena da, Espainiak eta Frantziak, Euskal Herriari gagozkiolarik, hori onartu ez, eta ahaleginak egiten dituztela estatua ez duten nazioei ordezkariak sinbolikoa debekatzeko. Esteban Gonzalez Pons PP Alderdi Popularreko ledeunak argitu zuen zergatia: "Munduaren begietara Espainiak azkar utziko zion

nazio bakar gisara hautemana izateari kirol eremu bat kirol selekzio askotan banatuta zanpatuko zuen unetik bertatik” (cfr.Gomez, 2007: 99).

Espainia ahalegindu zen bere lurraldearen zatitzat aldarrikatzen duen Gibraltar britainiar lur muturraren nazioarteko parte-hartzea ere eragozten. Baina, azkenean UEFAk bere baitan onartu zuen. UEFAk 2001ean ezarri zuen bere barruan sartu nahi zuen zernahi federaziok estatua izan behar zuen baldintza. Arrazoa eman zion Kirola Arbitratzeko Epaitegiak Gibraltarri, eskaera lehenago eginga zuelako. 2014an estreinako nazioarteko lehiaketa baterako sailkapenean parte hartzen hasi zen, Frantzia 2016an egingo den Europako Kopan jokatzeko lehian. Lehen partida Portugalgo Algarve hirian jokatu behar izan zuen Gibraltargo taldeak, FIFArek eskakizunen mailako futbol zelairik ez zuelako bere lurralde txikian. Poloniak 0-7 irabazi zion, eta modu horretara nabarmen utzi zuen oso gertagaitza zela selekzio berria 2016ko Europako Koparako sailkatzea. Nolanahi ere, kirol emaitzaz haratago, nazioartean burujabe agertzea garaipena zen Iberiar Penintsulako hegoaldeko lur muturrarentzat. Aldi berean porrota zen Espainiarentzat. Nolanahi ere, globalizazioaren fluxuak geroz eta eragingarriagoak diren garaian, eta estatuen erabakimena geroz eta murriztagoa den aldiaren, futbolaren mundu mailako etorriak zilegitasun sinbolikoaz hornitzen du erasanda dagoen estatu-nazioa, eta ia ezinezko egiten du, bide batez, Euskal Herriaren gisako nazioen parte hartzea, gaur egungo futbolaren eredu irauli ezean.

Arrazoizkoa da esatea besteen pareko nazio selekzio ordezkariaren gabeziagatik Realaren eta Athleticen gisako klub nagusiek hartu dutela euskal nazio nortasuna haragitzeko ardura futbol zelaiaren 1920eko hamarkadatik abiatuta, kirol hori komunitate imajinatuak irudikatzen zeukan gaitasunagatik masa ekitaldi bilakatu zenetik. Hasieran, joko moduak euskal arrazaren uestezko gailentasuna islatzen zuelako erabili zuten (Rojo-Labaien, 2014a). Ondorengo belaunaldietan, berriz, gehiengoak euskal futbolariak zelairatuta, bertako komunitatearen bereizgarri gisara, eta euskal gizarteaz lotura handiena mantentzeko. Bilboko Athletic da, inondik ere, horren adierazle handiena, Lehen Mundu Gerra ostetik, futbola Espainian gizarte ardatza bihurtu zenetik, soilik euskal futbolariak zelairatzeko jokabide aipagarria hartu baitzuen (Llopis Goig, 2008). Hala ere, nabarmendu behar da Euskal Herriko joera orokor eta bereizgarria dela gaur egun, gainontzeko euskal klubek ere, euskal haztegian hazitako futbolariak lehenesten dituztelako hamaikakoetan; Realaren kasuan 2013an jokatu zuen Txapelaldien Ligan ere bai. Athleticen kirol zuzendari eta Euskal Selektzioaren prestatzailearen hitzetan, gaur egungo mundu futbolearen parekorik ez duen kiroleko politika hau, "identitatea sortzen duen filosofia da, partaidetza sentimendua, leialtasun handia eragiten duena, eta tradiziozko eta modernitate balioak elkartzen dituen" (cfr. Rojo-Labaien, 2014). Futbola ondorioz, Espainiaren estatu nazioaren saio baterazlearen aurrean euskal nazio nortasuna adierazteko babestokia izan da euskal nazio nortasunarentzat. Aitzitik, futbolaz euskal nazioa bateratzeko gaitasuna aski murriztagoa da historian. John Walton historialariak gogora dakar futbolaren lehia izaerako garapenak hiri eta probintzien arteko bereizketak indartu zituela hasieratik Euskal Herrian, nazio elkartua eraiki beharrean (Walton, 2011). Horrek ez du esan nahi inoiz euskal taldeen batasuneko ekimenik izan ez denik. Ezagun da, adibidez, euskal taldeon arteko hartu-emanaren adierazgarri, Real eta Athleticen jokalariek 1976ko partidaren atarian ikurriña eskuetan jendaurrean atera izana, oraindik legeztatzeke zenean. Bestalde, euskal nazio taldearen inguruko eztabaidak bat egiterik gabeko euskal nazioaren izaeraren lekuko dira.

3.2 Euskal selekzioaren saioaren ezintasuna

Euskal selekzioak 1936ko gerrako testuinguruan European eta Hego Amerikan eginiko partida birak Euskal Herriaren egoera ezagutarazteko propaganda funtsa nahiz euskal errefuxiatuentzat dirua lortzeko zeregina zeukan (Gotzon, 1998). Bidenabar, futbol selekzioa identifikazio ardatz baterazlea bihurtu zen orduan (Unzueta, 1999), Euzkadi lehen autonomia lurraldearen izendapen berdina eta ikurriñaren koloreen araberrako janzkera hartuta. Frankismoaren lau hamarkadatan etenaren ondorenean 1979an berrezarri zen euskal selekzioa, aldi honetan, euskararen alde dirua biltzeko helburuarekin antolatutako partiden egokieran. Hartara, nabarmendu behar da 1990eko hamarkadan jauzia izan zela euskal selekzioak nazioarteko txapelketetan jokatzeko eskubidea aldarrikatzeko. 1993an Gabonetan adiskidantzazko partidak jokatzeko usadioa abian jarri zuen, eta urteroko maiztasunak ahabidetu zuen nazio taldearen aldeko aldarria indartzea. Hala, ESAIT

Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi taldea, futbolaz gain, beste euskal nazio ordezkariak ofizialak izatea galdegiten duena, 1995ean sortu zen. Ildo berean, 1998an Eusko Legebiltzarrak EAJ, EA, HB eta IU alderdien botokoekin gehiengo osoarekin onartu zuen Kirolaren Legeak zioen euskal federazioei bakarrik zegokiela EAeko ordezkariak egitea estatuan nahiz, bereziki, nazioartean ere (Gomez, 2007). Hori horrela, lege horren izaera bateraezina zen Espainiako lehen aipaturako 1990eko Kirol Legearen ahal gain-jartzailearekin, hari jarraiki Espainiako federazio eta kiroleko selektzioei zegokielako nazioarteko lehiaketetan Espainiako osotasuna ordezkatzeko. Ondorioz, Jose Maria Aznarren gobernuak Konstituzio helegitea jarri zion Eusko Parlamentuak gehiengo osoaz hartutako ebazpenari, eta epaia ematea luzaroan atzeratu zuen Konstituzio Auzitegiak. 2012an eman zuen ebazpenean adierazi zuen Euskal Herriko selektzioek nazioartean parte hartu ahal dutela, baldin eta kirol horietan espainiar federaziorik ez den, eta kirolaren nazioarteko ordezkariak egiteko estatuaren eskuduntza erasan gabe (cfr. EFE, 2012). Funtsean EAeko Kirol legea indargabetu zuen, eta nazioarteko ordezkarietan estatuaren funtzio hegemonikoa lehenetsi.

Inondik ere, estaturik ez edukitzea erabakiorra da futbolaz euskal nazio nortasuna haragitzea zailtzeko. Nolanahi ere, futbolarik, funtsezkoa den gabezia hori ahanzi gabe, islatzen ditu euskal nazio komunitatearen gatazkak ere, barrukoak eta berezkoak. Euskal Herria, hainbatek kultur nortasuna bakarrik aitortzen diona, hiru eremu politiko ezberdinetan zatituta dago, eta horietako batek, Ipar Euskal Herriak, ez du Frantziaren baita izaera politikorik. Horrek denak askotariko hautemateak sustraitu ditu euskal nortasunaren inguruan. Batzuek espainiar eta frantziar nazio nortasunen mendeko nortasun emaletzat dute; beste batzuek beren berezko nazio nortasuntzat. Gainera, euskal herritar izateari buruzko definizioa ere anitza da. Badira jaioterria eta hizkuntza gisako faktoreak lehenesten dituztenak, Ipar Euskal Herrian nagusiki, eta bestalde, Hegoaldean oro har, euskal herritar izateko borondateari garrantzia handiagoa ematen diotenak. Hala, euskal nortasuna hobetsi eta Euskal Herria beraien naziotzat dutenen artean ere badira ezbaiak. Euskal nazioa ordezkatzeko duen euskal selektzioaren inguruko korapiloa horren adierazgarria da, nazioa izendatzeko adostasun ezarekin abiatuta. 2007ko abenduan euskal selektzioak lehenengoz jokatu zuen Euskal Herria deituraz, Kataluniaren aurka jokaturako adiskidantzazko neurketan. Taldeak mugaz bi aldeetako lurraldea ordezkatzeko zuten, eta bi esparru horietako futbolariek hornitzen zenez, Euskal Herria izena hobetsi zuten jokalariek. Izan ere, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak osatzen duten erkidego politikoarekin lotu ohi da selektzioaren aurretiazko izendapena, Euskadi, Sabino Arana EAJren sortzaileak euskal nazioarentzat asmatu zuena. Aitzitik, hain justu, EAJk zuzendutako Eusko Jaurlaritzak Euskadi deitura historikoa berreskura zedin presioa egin zuen, eta 2009 eta 2010ean jokalariek adiskidantzazko partidari ez jokatzeko erabaki zuten. Eztabaida eragin zuen, euskal nazionalismoaren eskuin eta ezkerreko alderdien artean bereziki, euskal selektzioarekin atxikimendua daukatenen artean. Izatez, 1993an ezarri zen Gabonetako partiden usadioa gelditzea zekarren soilki, baina nazioaren izena, lurraldetasuna eta euskal selektzioaren erabilpena, eta, ezin uka, alderdikeria, izan zituen ezaugarri gertatuak (Rojo-Labaien, 2014a).

ESAITek eta euskal jokalarien gehiengoak bat eginik Euskal futbol federazioari galdegin zioten ofizialtasunerako bidean urrats gehiago egitea, eta 2010ean xede horretan akordiora iritsi ondoren, euskal selektzioak berriz ekin zion Gabonetako partidei. Venezuelari jarki eta gailendu zitzaion. Hain justu, Euskal Selektzioa izendapena, deitura berezia, hartu zuen orduz geroztik selektzioak, Euskadi eta Euskal Herria nazio deituren ezbaietik ihesean nolabait. Futbol nazio taldea, eta hartara, nazioa, deitzeko eztabaidak euskal nazionalismoaren baita askatu gabe den auzia nabarmentzen du. Horrez gain, nazioaren komunitate imajinatua elikatzen duten sinbolo eta lurraldearen mailan zehaztapen eta batasun eza ere. Ildo horretan, elkartasun eza da Euskal Selektzioaren proiektuan aurrera urratsak egiteko prest dauden agintarien eta talde ekintzaileen arteko ezaugarri nagusia. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak mesfidantzaz erreparatu die euskal selektzioen ofizialtasuna eskatzen duten herri elkartei. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendari Jon Redondok 2013an *Berria* egunkarian esan zuen euskal kirol selektzioen aldeko ekimena Eusko Jaurlaritzari eta EKFB Euskal Kirolen Federazioen Batasunari dagokiela (Redondo, 2013). Bestalde, euskal selektzioaren ofizialtasunaren aldeko herri taldeen artean ere ez dago batasunik, ez eta elkartasuneko ekimenik ere. 2009ko Abenduaren 27an Donostiako Belodromoan ehunka kirolarirekin antolatuta zuten KirolHerria jaialditik sortu zen Euskal Herria Kirola mugimendua.

Euskal Herria mailako txapelketak sorraraztea eta era horretara kirolaren eta kirolarien ekinaz euskal selekzioak bideratzea helburu zuen. Elkarre horren arabera, ESAITetik ezberdintzen zen horretan, ESAIT politikaren alorraren baitakoa zelako (Rojo-Labaien, 2014a). Gainera, 2014ko abenduan, Euskal Selekzioak eta Kataluniak Bilbon jokatu behar zuten Gabonetako adiskidantza partidarekin lotuta, Jauzia deituriko beste plataforma bat sortu zen Durangon euskal selekzioen ofizialtasunaren alde pausoak emateko asmoz. Kirolari eta kirol talde ugariren babesa jaso zuen ekimenak, lehenago ere helburu berarekin egindako ekimenak beren atxikimenduz sostengatu zituztenen antzera. Jauzia plataformak aurkezpenean iragarri zuen herritar, kirolari, federazio eta erakundeen arteko elkarlana sustatuko zuela euskal selekzioen alde (Larrabe Arnaiz, 2014). Dena dela, Euskal Herria Kirolak eta ESAITek ez zuten ekimen berriarekin hartueman zuzenik.

Redondok, *Berria* kazetan argitu zuen (2015) federaziorik ez dagoen kiroletan, edo estatua izatea eskatzen ez dutenetan, aukera izan dezakeela euskal selekzioak. Dena dela, futboleant, kirol orotan luzaz ordezkari-tza sinboliko handiena duen aldaeran, estatua eduki behar izatearen egungo oztopo gaindiezina oroitarazi zuen. Egoera aldatu bitartean, FIFAk nazioarteko partidak jokatzeko araututako datetan Euskal Selekzioak adiskidantzazko neurketa gehiago jokatzeko urratsak egingo zituztela iragarri zuen. ESAITek nahiz Euskal Herria Kirola taldeek antzerako proposamenak eginak zituzten, baina ez ziren gauzatu. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Europako Batasunera edo Europako Justizia Auzitegira joko zuela iradoki zuen, Euskal Selekzioak futbol ekitaldietan lehiatu ahal izateko. Orotara, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendariak berretsi zuen ESAITek 2008an esan zuena, hots, Gabonetako adiskidantza partida soilen zikloa amaitua zela, eta horrez gaindiko urratsak egin behar dituela Euskal Selekzioak. Horretan badago adostasunik.

4. Ondorioak

Futbola euskal nazio garaikidea aztertze-ko ikerketa tresnatzat hartu da artikulu honetan. Hein batean, Euskal Selekzioak nazioarteko txapelketak jokatzeko duen aukera balizko euskal estatua sortzearen aukeraren mendean dagoela ondorioztatu da. Futbol ordezkari-tza eta estatu-nazioa estu lotuta daude, eta areago globalizazio garaian, estatuari zilegitasuna ematen zioten bestelako ahalbide sinbolikoak ahuldu direnean. Nazioarteko ekitaldietan nazio selekzioa izateak ia osoki burujabetasun politikoa aditzera ematen du, eta horrenbestez, norbere berezko selekzioa izatea eta burujabetza aitortua izatea ia sinonimotzat hartu behar dira, FIFAk horrela esanda gainera. Futbola politikoa da osoki, sortzez XX.mendean, Lehen Mundu Gerra inguruko nazionalismoen norgehiagokaren testuinguruan, horrela egituratu baitzuten. Ezkorra izanagatik, abiapuntu hori aintzat hartu beharrekoe- da Euskal Selekzioaren geroari arrazoibidezko gogoetaz erreparatzeko. Horrek ez du esan nahi aurrerako urratsak egin ezin ditzakeenik, abiapuntua ezagun izan behar duela baizik. Bitartean, euskal klubek euskal nazio nortasunaren ordezkari-tzaren gidaritzat dute.

Nolanahi ere, futbolak eta Euskal Selekzioak euskal nazioaren kompleksutasuna adierazten du barnera begira ere. Euskal Herrian industrializazio berantiarraren testuinguruan gizarteratutako euskal nazionalismoak eta futboleko ekitaldiaren erabilpenak balio izan dute Espainiako estatu nazioaren proiektutik berezko nazio nortasuna bereizi ahal izateko, baina ez dute lortu euskal nazioaren baterazlea izaterik. Izan ere, euskal nazio nortasuna hobesten dutenen artean ere, hau da, euskal nazionalismoaren baitan dauden ekimene- n artean ere, elkartasun eza da ezaugarri- rik adierazgarriena, Euskal Selekzioaren inguruko liskarrek aditzera ematen duten gisara. Ondorioz, Espainia eta Frantziako estatu- ek Euskal Herriaren nazio ordezkari- tzari ezarritako eragozpenaz batera, euskal nazioaren nolakotasunaren barneko gogoeta sakonagoari bide ematen dio kirolak.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Artikulu honetan egindako hausnarketari ezkorregia iritzi ahalko diote hainbatek. Hala ere, gizarte ikerketako hurbiltze batetik burututako zientzia gogoeta zuhurrena dela deritzot. Hala, etorkizunera begira, ikergai izango dut, beti ere gizarte zientzietatik erreparatuta, futbol euskal nazio taldeak kanpoko eta barneko hertsidurei aurre egiteko izan dezakeen ahalmena aztertzea. Alde batetik, estatua izatea derrigortzen duen nazioarteko futbolen erakundetzean zer zirrikitu aurkitu eta nolako pausoak eman ditzakeen ikertuko dut. Bestalde, bereziki, euskal nazioaren

geroari buruzko barne auziak nola kudeatu ahal dituen aztertzea garrantzia handikoa da. Esan nahi baita estaturik gabeko euskal nazioaren gaineko adostasun zabalen gabezia nola gaindituko duen nazio taldeak ikertzea, Iparralde ere barne hartuta. Izan ere, Euskal Selektzioak aditzera ematen ditu euskal nazioaren lurraldetasunaz, sinboloez eta izenaz ebatzi gabe dauden ezbaiak. Futbolak nazioarteko ekitaldietan estatu-nazioen sinboloak bateratzen eta zilegitzen lagundu ohi du, baina onura horretarako, jakina denez, derrigorrezko baldintza da aurrez estatua edukitzea.

6. Erreferentziak

- Anderson, B. (1991): *Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*, Verso, Londres eta New York.
- Ball, P. (2010): *Morbo. La historia del fútbol español*, T&B Editores, Madril.
- Boyle, R. eta Haynes, R. (2000): *Power play: Sport, the Media and Popular Culture*, Longman, Londres.
- Bromberger, C. (1998): *Football, la bagatelle la plus sérieuse du monde*, Bayard Éditions, Paris.
- Castañón Rodríguez, J.(1993): *El lenguaje periodístico del fútbol*, Universidad de Valladolid, Valladolid.
- De la Madrid, J.C. (2013): *Una patria posible: Fútbol y nacionalismo en España*, Trea Ensayos, Gijón.
- Dietschy, P. (2010): *Histoire du football*, Perrin, Paris.
- EFE (2012): Las selecciones vascas podrán competir internacionalmente si España no tiene representación, *Diario Vasco*, apirilaren 26a.
- Espainiako Gobernua (1990): 10/90 legea kirolarena, urriaren 15ekoa.
- FIFA (2012) *Estatutos de la FIFA Edición Julio de 2012*.
<http://www.fifa.com/mm/document/affederation/generic/01/66/54/21/fifastatutes2012e.pdf>
- Gomez, D. (2007) *La Patria del Gol: Fútbol y política en el Estado español*, Alberdania, Irun.
- Gonzalez Aja, T. (2002): La política deportiva en España durante la República y el Franquismo, in T. Gonzalez Aja (arg.), *Sport y autoritarismos. La utilización del deporte por el comunismo y el fascismo*, Alianza Editorial, Madril, 169-202.
- Gotzon, J. (1998): *Euskadiko futbol selektzioaren historia*, Ediciones Beitia, Bilbo.
- Hobsbawm, E. (1992): *Nations and nationalism since 1780: Programme, myth, reality*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Larrabe Arnaiz, A. (2014): Ofizialtasunerako Jauzia, *Berria*, abenduaren 6a.
http://www.berria.eus/paperekoa/1787/024/001/2014-12-06/ofizialtasunerako_jauzia.htm
- Llopis Goig, R. (2008): Identity, Nation-state and Football in Spain. The Evolution of Nationalist Feelings in Spanish Football, *Soccer & Society*, 9, 56–63.
- Quiroga, A. (2013) *Football and national identities in Spain: The Strange Death of Don Quixote*, Palgrave Macmillan, Basingstoke.
- Redondo, J. (2013): Gure ofizialtasuna eskatzea ez da besteei kalte egitea, *Berria*, otsailaren 5a. Elkarrizketaren egilea: J. Etxeberria. http://paperekoa.berria.info/kirola/2013-02-05/022/001/eutsi_egin_behar_dugu_kolpeari_nola_edo_hala_aurre_egin.htm
- , (2015): Bidea errazagoa da Espainia eta Frantzia ez dauden lekuetan, *Berria*, otsailaren 10a. Elkarrizketa egilea: U. Zubeldia. http://www.berria.eus/paperekoa/1833/024/001/2015-02-10/bidea_errazagoa_da_espainia_eta_frantzia_ez_dauden_lekuetan.htm
- Rojo-Labaien, E. (2014a): *Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- , (2014b): El fútbol: reflejo permanente de la diversidad nacional del estado español desde sus orígenes, *Apunts Educació física i Esports*, 116, 23-32.
- Shaw, D. (1987) *Fútbol y franquismo*, Alianza Editorial, Madril.
- Sonntag, A. (2008) *Les Identités du football européen*, Pug, Grenoble.
- Unzueta, P. (1999) Fútbol y nacionalismo vasco, in S. Seguro (arg.), *Fútbol y pasiones políticas*, Debate, Madril, 147-167.
- Walton, J. (1999): Football and Basque identity: *Real Sociedad* of San Sebastián, 1909-1932, *Memoria y Civilización*, 2, 261-289.
- , (2011): Sport and the Basques: Constructed and Contested Identities, 1876-1936, *Journal of Historical Sociology*, 24, 451-471.